



LIBURUA

Baserriaz eta galeraz



EREIN

BASERRIA (H)UZ(S)TEN OSKAR GAZTELU

EREIN, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Hitz gutxi batzuekin kontaezina kontatzeko aukera ematen omen dio poesiak Oskar Gazteluri (Larrabetzu, 1964). Orain arte saiakeragintzan aritua izan arren, berriki argitaratu du larrabetzuarrak bere lehen poema-bilduma. Ernestina de Champourcín 32. Poesia Saria irabazita plazaratu du *Baserria (h)uz(s)ten* (Erein, 2023) liburua, 22 poema eta hamaika hausnarketa biltzen dituena. Izenburuak berak adierazi legez bilduman gailentzen den irudia utzitako eta hustutako baserriarena da: baserria, ordea, etxe landatar soil izatetik haratago doa lerrootan.

Galbidean diren bizimodu eta usadioei, belaunaldi helduenarekin batera desagertzearen ezagutzari, bizitza eta heriotzaren arteko harremanari, natu-

ran diren askotariko zikloi, gauzek eta espazioek gordetzen duten memoria-ri eta galerak dakartzen bakardade eta hutsminari begira jartzen gaitu Gazteluk ondutako nolabaiteko paisaia poetikoak, lorategiz, euri samurrez eta aspaldiko altxorrez betetako kutzaz edertutakoak: "Noizean behin, soseguz, / neure barruko / baserri txikira sartzen naiz, / neure haurtzaroko baserrira. / Ezin dut esan zoriontsu ginenik, / baina gogoko dut / leku berean urteen oihartzuna entzutea (...)"

Baina sozialtzat har genitzakeen hausnarketa gaien iturri izateaz gain, ahots poetiko pertsonala elikatzen duen jaiotetxea ere bada baserria Gaztelurentzat. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da amaren heriotzak eta horren os-

teko doluak bilduman duten garrantzia. Ama hizpide duten edota amari zuzendutako poemek kutsu hunkigarritz blaitzen dute liburua: absentiak presentziak baino leku gehiago hartzen ei baitu espazioan. *Apirila* poema dugu, tartean, aipatutakoaren adierazle: "Nik ez dakit hemen egongo naizen, baina udaberria / etorriko da", esaten zuen. / Udaberria hemen dago. / Loreak haren zain, / ea belar txarretatik norbaitek libratzen dituen. / Aurten amak ez du nire hori hartuko".

Kasu batzuetan gogoeta gaien eta poetikotasunaren arteko oreka fintzeke dela esan genetzakeen arren, esateko latz direnak adierazteko moduen bilaketa doia dira poemok: baserriak utzi arren beheko suek piztuta iraun dezaten saiakera moduko bat. ●